

AIETEKO ETA PARTE ZAHAR ETA ERDIALDEKO ANBULATEGI BERRIEN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Aieteko eta Parte Zahar eta Erdialdeko anbulategi berriak direla-eta, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko otsailaren 13ko bilkuran egingako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko Udal Gobernuak lan handia egin zuen Aietek anbulategia izan zezan. Aieteko lursail guztiak aztertu ondoren, partaidetza prozesu bat abian jarri zuen eta haren ondorioz, auzotarrek Pio Baroja 55-57 eta Aiete pasealekua 41-43 inguruko anbulategi berria eraikitzeke aukeratu zuten.

Geroztik, hainbat lan egin dira anbulategia gauza dadin, eta Plan Berezia, behin betiko, 2016ko maiatzaren 26an onartu zuen Udalbatzak aho batez.

Bestalde, 2015eko maiatzaren 8an, Tokiko Gobernu Batzordeak Arraindegi eraikinean osasun zentro bat jartzeko administrazio emakida esleitzea erabaki zuen. Osasun zentroa jartzeko esparrua identifikatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren erabakiari (Osakidetza atxikitzekeari) erantsitako planoetan. Urtebete luze joan ondoren, Gobernu Batzordeak baldintzen agiriaren 5.1 eta 7. artikulua eta eranskina aldatzea onartu zuen (2016-09-06).

Gaur egun, obrak noiz hasiko diren, Aieten eta Arraindegi eraikinean, misterio bat da auzotarrentzat. Alkateak batzordean gaia ez zuen argitu; Osakidetza Aieteko anbulategiaren proiektua otsailean eta Arraindegikoa abuztuan lantzen hasiko dela baino ez zuen adierazi Eneko Goiak. Beraz, proiektuak egin gabe daude eta martxa honetan legealdia beteko da, eta ez dira gauzatuko.

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, bi anbulategi hauek donostiarren

lehentasun bat direnez, denbora alferrik galdu gabe, udal legealdi honetan obrak bukatuak eta anbulategiak irekiak izateko lan kronograma aurkezteko eska diezaiola Osakidetzari.

2-Udal Gobernuak Eusko Jaurlaritzari eska diezaiola bere aurrekontuan aurreko puntua betetzeko behar adina diru jar dezala.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Josu Mirena Ruiz Martin

EH Bildu udal taldeko zinegotzia